

<http://ikas.eus/spip.php?article1313>



Adio oporrak - antzerkia

- Baliabide pedagogikoak - Literatura formatu digitalean - Antzerkia - Kattalin Sallaberryren Antzerkiak -



Linean argitaratua data honetan: 2010(e)ko abenduaren 21a

Copyright © IKAS Euskal Pedagogia zerbitzua - Eskubide guziaz

erreserbatuak



Adio oporrak Kattalin Sallaberryren antzerkia

Obra hau copyrightaz gerizatua da. Baimenik gabe kopiatzea, zabaltzea edo berrekoiztea debekatua da.
©Ikas, euskal pedagogia zerbitzua, 2010.

Elisa: Egun on, Maider eta Patxi.

Maider: To, aspaldikoa. Zer berri ? Nolako bakantzak iragan dituzu?

Elisa: Arras onak. Uztailean Getarian bizi den amatxiren etxean pasatu ditut bi aste eta beste biga Lekorneko kusien etxean. Gaineratekoa etxean pasatu dut burasoak orduan etxeko baitziren.

Patxi: Getarian zinelarik hondartzan izan zara beraz.

Elisa: Bai, egunero : goizean itzuliño bat eta arratsean beste bat. Badakizu, han, arratsaldeko biak eta erditan bazkaltzen ginen beraz goizean ere astia bagenuen.

Eta zuk, Maider?

Maider: O, gu aurten lehen aldikoz atzerrira joan gara: Portugalera. Lisboan egon gara aste bat eta gero Porton beste bat. Bazter ederrak ikusi ditugu baina tristeak ere. Porto inguruan txabolak badira oraino.

Patxi: Zer dira txabolak?

Maider: Hiri inguruetan jende pobreak eraikitzen dituen etxolak. Taulaz, metalezko xaflaz eta berdin kartoiz eginak dira. Farrasta bat egiten du jendea molde horretan bizi dela ikusteak. Ohartzen naiz orain zein ontsa bizi naizen. Erabaki dut ez naizela gehiago zinkurinka ariko hau edo hura nahiz.}

Elisa: Bai, hori orain erraiten duzu baina laster ahantziko dituzu bai txabolak eta beste ! Eta zuk Patxi, zer egin duzu?

Patxi: Etxean egona naiz, bi hilabetez!

Elisa: Bi hilabetez ? Ez zara enoatu?

Patxi: Ni, enoatu ? Ba pentsa ! Ikastolan baizik ez naiz enoatzen, barnean garelarik, mugitu gabe. Bestenaz beti denbora-pasa zerbait atzematen dut : arrantza, pilota lagunekin, ateraldi zenbait familiarekin. Gainera badakizue telebista zein maite dudan!

Maider: Bai eta segur naiz ohean ere egonaldi onak egin dituzula.

Patxi: Bai, egiazko basaku bat naiz : goizetan berdin hamaikak artio egoiten nintzen zurrungan lo. Zer nahi duzue, oporrak pausatzeko eginak dira.

Elisa: Orain, laster haste xintximariak! Erosiak dituzue puskak?

Maider: Ez, bihar joatekoak gara amarekin.

Patxi: Otoi, ez ezazuela aipa sartzeari ! Tripako mina jauzten zait ! Funtsean uste dut materialaren zerrenda galduta dudala. Hara bilduko dudan lehen erasialdia!

Maider: Are, Patxi! Irrialdi onak ere egiten ditugu elkarrekin!

Patxi: Funtsean, ez du balio aitzinetik odol gaixtorik egitea. Aski goiz jinen da delako egun hura. Goza ditzagun gelditzen zaizkigun azken eguntto horiek. Ez adiorik beraz, neskak!

Bi neskak: Bai, laster artio.

Jokalariak: hiru ikasle (Elisa, Maider, Patxi)

Autorea: Kattalin Sallaberry

Argitaratzailea: Ikas

Argitaratze data: 2010/12/21

Maila: 3. ziklotik goiti